

M. U.-k eta LKSk zerbitzu-ereduari eta eraginkortasun komertzialari buruzko jardunaldia egingo dute

2007/08/05

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak, LKSrekin elkarlanean, jardunaldi bat egingo du bihar, ekainak 22, Bilboko Euskalduna Jauregian. Jardunaldiko aztergai nagusiak honako hauek izango dira: batetik, bezeroarekin harremanetan jartzeko esperientziak ezagutu eta estrategiei buruzko gogoeta egitea; bestetik, harreman eta hazkunde iraunkorraren ereduak oinarri dituen bi alderdi aztertzea: zerbitzu-eredua eta eraginkortasun komertziala.

Bezeroen eskariak, lehiatzeko moduen aldaketak, bereizteko beharrak eta balio erantsia bilatzeak bultzatuta, enpresek negozio-eredu berriak aurkitu behar dituzte, zerbitzua funtsezko elementua dutenak. Hainbat erakundek aldaketari ekin diote dagoeneko, eta aldaketa horrek antolamenduaren egokitzapena dakar berekin: jarduera-arlo berriak sortu dira, euskarriari eta egiturari lotutako berezko premiak dituztenak.

Bestalde, lantaldeen eraginkortasun komertziala hobetzea lagungarria da, neurri handi batean, negozioa handitu, baliabideak hobeto kudeatu, ahaleginak bideratu eta aukerak galtzeko arriskua ahalik eta txikiena izateko.

Mondragon Unibertsitateko Errektore **Josu Zabalak** eta MCCko Zerbitzu Saileko Lehendakariorde **Javier Sotilek** hasiera emango diote jardunaldiari. MCCk zerbitzuen inguruko negozioen alde egindako apustua izango du aztergai azken horrek. Horiez gain, IDC Research Espainako Zuzendari Jaime Garcíak hitzaldia eskainiko du, "manufaktura-enpresaren eboluzioa zerbitzu-enpresetan" gaia hizpide hartuta. Horrez gain, Fagor Arrasateko Antolamendu eta Sistema Zuzendari Enrique Ancínek zerbitzu-eskariei erantzuteko sortutako negozio berri bati buruz hitz egingo du, eta LKSko CRM Lineako arduradun José Antonio Arcek eraginkortasun komertzialaren erronken berri emango du.

